



Ikastola berriko, Seaskako arduradunak eta herriko auzapeza Azkarateko ikastolaren egoitza izanen denaren aitzinean. BOB EDME

Iragan astean jakinarazi zuen Seaskak bedera ikastola zabalduko zituela heldu den sartzean Azkaraten, Basusarrin eta Biriatur. Buraso berrien temak eta ikastola gotorren arintze beharrak ekarri dituzte proiektu berriak. Ikastolen federazioak uste du arrakastaren seinale dela.

## Hiru ikastola berri buruileko

### Iñaki Etxeleku

**B**ere buruaz kontent da Seaska. Herri Urrats gabe jakinarazi du heldu den sartzean Ipar Euskal Herriko ikastolen kopurua 34 zenbakira hupatuko dela, Azkarate, Basusarri eta Biriatur irekiko dituenekin.

«Seaska da azken hamar urtetan hazkunderik handiena duen sarea», dio ikastolen federazioak. Lehen mailtako hiru sareetan (elebakarrak eta elebidunak barne) izan den ikasle andanaren emendatzea kontuan hartuz, ageri da Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako eskoletan 1.132 ikasle gehiago direla 2004tik hona. Horietatik 881 ikastolatar joan dira, Seaskaren arabera; eskola publi-


koetan 291 sartu direlarik eta giritino «pribatueta 40 haur galdu» dituztelarik. «Jakinez azken hamar urteetan Ipar Euskal Herriko populazioa anitz emendatu dela eta emendatze hori kanpotik jin frantses jendeengandik izan dela».

Gauzen haztatzeko, erran behar da Ipar Euskal Herriko lehen mailako eskoletan denetarat hogeita bost mila ikaslez goiti dela


eta ikastoletan bi mila hirurehun inguru. Hots, lehen mailako haurren %9 hartzen dituzte ikastolek. Gaineratekoak eskola elebidun eta elebakar publiko eta pribatuaren artean banatzen dira. Horiek horrela, hobetzea bistakoa da. 2004-2005 ikasturte hastapenean, 1.386 haur abiatzen ziren ikastoletako lehen mailatan. Ipar Euskal Herriko maila bereko ikasleriaren %5era heltzen zen Seaska.

Hamar urte horietan herrika sortu hurbileko ikastolen parioa ona izan dela uste du ondorioz.

Hiru lurraldeetako haurren 10etik bat baizik ez badu ere, azken urteetako hazkundeari so egin nahi dio Seaskak: «Zifra horiek frogatzen dute azken urteetan ikastola berrien irekitzeak, ikastolak herritarrengatik hurbiltzeak, bere ondorioak izan dituela ikastolen kopuruen goraka-



LEHEN MAILAKO IKASTOLAK



ITURRIA: BERRIA

labete Donibanekoan, eta bazterrak hertsiki bilakatzen ari dira. Erran behar da Garazi aldeko ikastola, geldialdi zerbait izan bazuen duela zenbait urte, berriz azkarki goiti abiatua dela, bereziki azken hiru urte hauetan 107 haurretarik 140ren hozkaren gaindiztera heldua baita. Buraso talde bat hasia zen jada zenbait hilabete hauetan leku bila ikastola berri baten zutik emateko inguruko herrietan, eta «azkenean, Azkarate izan da hauturik hoberena».

Azkarateko lehengo eskola publikoa 28 urte hauetan hetsia zen, nahiz eta arte horretan Ikas Bi sareak egonaldi zenbait egin dituen. Baina, egoitza ez zen gehiago baliatua, Jean Mixel Galant herriko auzapezak erran duenez: «Ohar-tu gara ez zutela deus egiten bastizaz, eta kontratua hautsi dugu». Aspaldian erabilia ez zen eskola publikoa bilakatuko da, beraz, Munhoa deituko den ikastola berriaren aterpe. «Lehen aldia da herri batean eskola bakarra ikastola dela», dio Seaskak.

Biriatuko ikastola berriak ere arinduko ditu auzo herrietako bi ikastola gotorrak. Hendaia da markak hausten dituen 259 ikaslerekin. Urruñan, 113 ziren buruileko sartzearan. Konprenitzekoa da errazki, beraz, beharra. Baina Seaskak esplikatzeko du aita-ama biriatuarren nahikaria ere izan dela ikastola berriarena. «Hendaia eta Urruñan gora eta gora ari dira, eta momentu berean Biriatuko burasoak motibatuak dira ikastola baten irekitzeko». Gehien hazi diren ikastolen artean dira biak ere, azken urteei begiratzen bazaie.

Ondorioz, irailean bospasei haurrekin abiatuko dute ikastola 1.015 biztanleko Lapurdi hegoaldeko herrian. «Bastimendu pri-

batua izanen da, eskola publikoaren ondoan, alokairu pean».

**BABen atean**

2.518 biztanle ditu egungo egunean Basusarri. Nahiz eta azken hamarkadan ez hainbeste hazi, sekulako punpa egin zuen lehena, duela hogeita bost urte oraino mila herritar inguru baitzituen. Doblatu zuen kopurua, eta Baionako hirigune sartzearan izanez, sekulako tira du hara lanera doazenez bizitokiaren egiteko.

Baina Basusarri bada oraino eremu, eta, nahiz eta lurren prezioa gora izan, badaiteke oraino handituz joanen dela. Seaskak berak hala dio: «ondoko urteetan anitz handituko da Basusarri, abiatuak diren etxebizitza proiektuekin». Guzuz frantsesetua den eremua da; eskola bakarra du, publikoa, 206 haurrekin eta

osoki elebakarra. Auzo herrian, Arrangoitzen, eskola publikoa badute hor ere 200 bat haurrekin baina erdiak elebidun sailean. Arbonan 120 ikasleko eskola publikoa bada, hor ere erdi pasatuxea elebidunean. Pribatu girstinoa ere bada Arbonan, 70 haurrekin, 28 elebidunean.

Hurbileko ikastolak Baiona, Angelu eta Miarritzekoak ditu, baina horiek ere «handituz ari dira, eta eskaintza handitzea erabaki da». Bidarte eta Uztaritzeko ikastolak ere ez dira urrun. Bizkitartean, Ahetze eta Arbonan ez da, ez eta Milafrangan ere.

2012an jaioak diren 7 haurrekin abiatzekoa da Basusarriko ikastola berria. Eraikin publiko batean eginen da, alokairu pagatuz. Ipar Euskal Herrian biztanle gehien duen hiriguneko alartze hori estrategikotzat dakusa, beraz, ikastolen federazioak

euskararen presentziaren gartzeko bidean.

Ama ikastolekin abiatuko dira hiru ikastola berriak. Orain arte sortu ikastolen gisan, kopuru xumearekin, baina hazteko esperantzarekin. «Joan den irailean 3.200 ikasleren heina gaintu genuen», dio Seaskak. «Heldu den sartzearan, 3.300dik goiti izanen dira». Bistan da kopuru horretan hiru kolegioak eta lizeoa gehituak zaizkiela lehen mailako ikastolei.

Baikortasun berarekin, iruditzen zaio zenbaki horiek erakusten dutela «azken urteotan, parte


**«Zifrek frogatzen dute ikastola berriak herritarrengandik hurbiltzeak bere ondorioak izan dituela»**

**«Basusarri garapen betean den herria da. Eskola publiko bat bada bakarrik, eta ez du sail elebidunik»**

**«Joan den irailean 3.200 ikasleren heina gaintu genuen, eta heldu den sartzearan, 3.300tik goiti izanen dira»**

batez, eskola publiko eta pribatuetan martxan ezarri den murgiltze espermentazioa. 45 urtez erran duguna egun ebidentzia bat bilakatu da: gizartea euskalduntzeko murgiltze eredu beharrezkoa da». Nahiz zehazten duen delako espermentazio horiek ez direla ama eskoletan baizik egiten, klase tenoretan.

«Baina ikastola berriak irekiz, mugimendu oso bat sortzen ari gara euskararen alde», dio harro Seaskak.



dan». Azken bost urte hauetan sortu diren ikastola berrien handitzea ere dauka erakusle federazioak, Lekorneko Baigura ikastolan hirugarren urtea zabaldu baitzen buruileko sartzearan, Itsasu eta Baigorri laugarrena, Aloze eta Donamartiriko Arberoakoan bosgarren urtea eta Bidarten lehena.

Ez dira ahanzi behar abiatu berrietan diren Ziburuko eta Beskoitzeko ikastolak.

**Gotorrak arindu**

Azkaraten jakinarazi zuen Seaskak joan den astean bere 32. ikastola zabalduko zuela herri horretan heldu den sartzetik goiti.

«Garaziko ikastola (Donibane Garazin eraikia dena) ttipi gelditzen ari zen, eta ondoko hilabete eta urteetan geroz eta gehiago izanen zirela (ikasleak) kontuan hartuz, erantzun bat atzematea baitezpadakoa zen». 142 haurrekin abiatu zuten urtea duela zortzi hi-